

Ni-aren moda

Emakumezko edo gizonezko sentitu al daiteke inor?


Euskaldun edo espainol sentitu al daiteke inor?

Elkar argitzen dutelakoan egin duzu bigarren galdera, Juanjo.

Bada, nire ustez, emakumezkoa edo gizonezkoa zara, sentimenduetatik aparte. Aluduna emakumezkoa eta zakilduna gizonezkoa. Bestela da, apendizeta daukanak zuloa nahiago izatea. Nire ustez, hori ez da emakumezko sentitzea. Zakilarekin jaiotakoak zergatik nahi du alua? Alua dutenek egiten eta sentitzen dituzten gauzak egin eta sentitu nahi dituelako, eta bere inguruko —eta are gutxiago botereak kanonizatutakoek— zakildunek ez dituztelako gauza horiek egiten ez sentitzen.

Demagun, emakume sentitzen dela gizon jaiotako bat, emakume sentitzen dela emakume askok sekula egin ez dituzten arren emakumezkoek dagozkien gauzak egin eta sentitu nahi dituelako: frantses estiloko manikura hamabost egunetik behin, gizon iletsu bat maitatu, azken belaunaldiko lisagailua erosi. Horren aurrean, bi jarrera hartu ditzake: bata, gizon jaio den arren, gizotasunaren kanonari aurre egin eta sentitzen dituenak aurrera eramane; bestea, natura tronpatu egin zela barneratu eta aldarrikatu, eta zakila mozteko adina sos aurreztu bitartean, oilasko batek baino hormona gehiago irentsi.

Eta nazioa ez, ez da ukigarria, ez da usaingarria, ez da neurgarria. Baina elektroiak ere ez, eta hala ere, zientziak, elektroien benetakotasunean sinetsi zuen aurrera egin ahal izateko —ez dut oroitzen nori irakurri diodan—. Euskalduntasuna edota espainolasuna, ez dago apendizeeen baitan. Nazio bateko edo besteko kide izan edo sentitu, norberaren testuinguru eta bizi-penei dago lotuta, eta



Eider Rodriguez

Oñasagarre

Agirre

berariazkoa da. Euskaldun, espainol, bietarik eta bat ere ez sentitzen direnak ezagutzen ditugu. Baita ere, euskaldun sentitzetik espainol sentitzera pasa diren transak, eta alderantziz.

Orain, modan dago androgino izatea —estetikan behintzat, hortik kanpo, gizonezkoek gizonezkoen soldatak eta emakumezkoek emakumezko-

enak jasotzen baitituzte; androginia gorabehera, gizonezkoak dira emakumezkoak erailtzen dituztenak—.

Orain, modan dago naziogabe izatea. Baina oraindik eta modanago dago antinazionalista izatea. Orain, postmodernitatearen opari pozoindu bat gehiago, modan dago ni-ismoa. Eta modak, horixe dauka: modan jarri arte itsusi, lotsagarri, ezkutagarri zena, modaren babesean, eder, publikoki aldarrikagarri eta erakusgarri bilakatzen da. Modako.

Eta moda guztiak bezala, *bob* erako ile mozkeratik Zarako zapi palestinar koloretuetara, ni-aren moda, sistemaren mesederako sortua izan da, behinola jainkoak bizi ziren lekutik bidalia.

Eta ez diot inori ezer aurpegiratu nahi, Katixa. Baina batzuetan, susmagarri egiten zait berripaperetan eta aldizkarietan, odol tanta, metraila, sutauts eta portzentaieen alboetara, norbere buruaz aritzeko prest dagoen norbaiten argazkiarekin topo egitea. Inkietantea.

Orain urte batzuk bufoien papera betetzen genuen behintzat: erregearen lepotik txisteak egin eta kontrabotere bat sortzeko zirrikitu bat zabaltzen zuen idazle jendeak.

Baina orain, ez ote gara triste xamar gertatzen, bufoiarena beharrean, azkazala apurtu zaion erreginaren papera bete nahian?

Ez ote da interesgarriagoa ni-aren konkista nobeletarako uztea? ■



Orain, modan dago naziogabe izatea. Baina oraindik eta modanago dago antinazionalista izatea.

Orain, postmodernitatearen opari pozoindu bat gehiago, modan dago ni-ismoa

